

PARTZUERGOKO HAURRESKOLAK

Publiko, unibertsal, euskaldun eta

DOAKOAK!

Matrikulazioaren azterketa




2014ko azaroaren 4ean

2014-15. ikasturtea: Matrikulazio beherakada baieztatzen da

1. MATRIKULAZIOA: HAURREN ERROLDA

Pasa den maiatzean Haurreskoletako matrikulazioen inguruan egin genuen azterketan garbi ikusten zen azken urteetan Haurreskolak Partzuergoko Haurreskoletan ematen ari den matrikulazio beherakada ([ikus 2014ko maiatzean eginiko azterketa](#)). 2014-15 ikasturte hasierako matrikulazio datuek matrikulazioaren beherakada baieztatzen dute.




Azken hiru urteetan Haurreskolak Partzuergoan matrikulaturik egon diren hauren matrikulazio bilakaera aztertuz gero, 2012 eta 2014 urteak alderatuz, haurreskoletako hauren errola nabarmen jaitsi da: 1222 haur gutxiago

Jaitsiera hau Lurraldeetan horrela banatua dago

	2012	2014	Diferentzia	
ARABA	1.252	1.033	-219	-17%
BIZKAIA	2.475	2.010	-465	-19%
GIPUZKOA	2.250	1.712	-538	-24%

Beherakada hau, matrikulazio berrietan nabaritzen da bereziki, hau da matrikulatzen diren 0-1 urteko haurengan:




Adin tarte honetan, 2012 eta 2014 urteak alderatuz, 722 haur gutxiago matrikulatu dira, hau da %40 haur gutxiago

Jaitsiera hau Lurraldeetan horrela banatua dago

	2012	2014	Diferentzia	
ARABA	277	202	-75	-27%
BIZKAIA	780	483	-297	-38%
GIPUZKOA	758	408	-350	-46%

Matrikulazio beherakada hau oso kezagarria gertatzen da, bereziki kontutan izanik beherakada hau jendarte osoari gogor eragiten ari zaizkion eskubide eta lan-baldintzetan inposatzen ari diren murrizketen ondorio zuzena dela.

2.- HAURRESKOLETAKO PLAZAK




Grafikoan ikusten dugunez, haurreskoletan 3.521 plaza libre gelditzen dira, plaza guztien %43a.

Lurraldeka aztertzen badugu, Gipuzkoako lurraldea da, jatsiera hau gehien nabaritzen duena: Bertan dauden plaza guztien erdiak hutsik daude, haurrik gabe.

PLAZAK	Guztira	Libre	
ARABA	1669	636	38%
BIZKAIA	3274	1264	39%
GIPUZKOA	3333	1621	49%
GUZTIRA	8276	3521	43%

Aurrez esan moduan, ELAren ustez jaitsiera honetan zeresan zuzena du azken urte luzeetan Eusko Jaurlaritzak 0-2 urteko haurren hezkuntzarako garatzen duen politikak eta politika hauen eta krisiaren ondorioz beraien seme-alabak haurreskoletan matrikulazioa ezinezko izatea geroz eta familia gehiagori.

0 urteko plaza libreak




Bereziki deigarria 0 urteko plazen jatsiera

Haurreskoletan 0 urteko plazak 2.536 dira, hauetatik 1.030 besterik ez dira bete, hau da, 1.506 hutsik daude, plazen %60 alegia.

Kasu honetan ere Gipuzkoa da plaza libre gehien duena %63

3.-EUROPATIK URRUN

EAE n bi urtez azpiko ikasleak eskolaratzen dituzten ikastetxe publikoak partzuergoaren Haurreskolak eta udal haurreskolak dira. Hauek adin tarte honetako haurren %20,4ri eskaintzen diete estaldura, Europako batz bestekoa baino 8 puntu gutxiago eta Sueziarekin alderatuz gero oso urrun.



Garbi dago Europako estaldurara iristeko, plaza libreak beteten hasi behar garela, eta horretarako Eusko Jaurlaritzak neurri zehatzak hartu behar dituela.

4.- BEHERAKADA HONEN ARRAZOIAK

EAEko 0-2 urteko estaldura hau, ez da harrizkoa Eusko Jaurlaritza eta Haurreskolak Partzuergoa hezkuntza tarte honetan garatzen ari diren politika ez-nahikoa eta krisiaren aitzakiatzat harturik langileriaren aurka hartzen ari diren neurri gogorrak medio.

Izan ere, krisi garai honetan, haurreskolan 5 orduetik gora matrikulaturik dauden haurren familiek 208 € ordaindu behar izatea, ez dago edozein familiaren esku.

Gogoratu beharrean gaude gainera azken hamarkadetako datuen baitan, Eusko Jaurlaritzak, hezkuntza aurrekontuan herrialde garatuenek batz-beste bideratzen dutena baino 1,1 puntu gutxiago bideratzen dituela, hau da, proportzioan 733 milioi euro gutxiago, Europako herrialde garatuenengandik oso urrun. Eta abiapuntua hau izanik, 2014ko Eusko Jaurlaritzaren hezkuntza aurrekontua 2009koa baino 63miloi txikiagoa dela.

Gure hezkuntza-sistemak hutsune handia dauka 0 eta 2 urteko tartean, eta murrizketek areagotu egin dute egoera. Gure herrian, oraindik ez dago bermatua 0-2 urte arteko haurren heziketa, eta unibertsala eta doakoa izatetik oso urruti dago. Baliabide gutxi bideratzen da adin-tarte horretako hezkuntzarako, eta ez dira inondik ere nahikoa jendarte osoaren beharrei aurre egiteko eta benetako hezkuntza-proiektu bat garatzeko. Azkenaldian, besteak beste haurreskolak itxi dira, lanpostuak galdu, ordezkapenak gutxitu, lan-kargak handitu eta soldatetan ere murrizketak eta izozteak inposatu dituzte.

5.- ELAREN PROPOSAMENA: HAURRESKOLAK UNIBERTSALAK ETA DOAKOAK

Haurreskolak, euskaldunak eta kalitatekoak izateaz gain, unibertsalak eta doakoak berehala izan behar dute

ELAk ez du inolako murrizketarik onartzen. Are gutxiago, matrikulazio arazorik ez duten haurreskolak ixtea eta behar nabariak dauden arren lanpostuak murriztea.

Badaude alternatibak borondate politikorik balego eta 0-2 hezkuntzak, esan bezala, ez du inolako murrizketarik behar, guztiz bestela inbertsio askoz handiagoa, haurreskola gehiago, langile gehiago, lan baldintza hobeak eta baliabide gehiago behar ditu. Hori da, behin eta berriro, ELAk eskatzen duena eta eskaera horretan jarraituko du.

ELAk Haurreskolak hezkuntza proiektuaren barruan ongi txertatzea eskatzen du, 0-2 urteko tarteak benetako hezkuntza planteamendua izan dezan. Eta honen baitan unibertsala eta doakoa izan dadila, nahi duten familia guztien esku izan dadin.

Modu zehatzagoan, haurreskolak zerbitzu publiko diren heinean, benetan unibertsal eta doakoak izan daitezen eta matrikulazioaren beherakada honi aurre egiteko, zera proposatzen du ELAk: **3 urtetan haurreskolak doan izatea eta horretarako beharrezkoak diren baliabideak 2015eko Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuetan sartzea.**

ELAk matrikulazio kuotak errentaren arabekoak izatea proposatzen du, baina soilik behin-behinean, modu progresiboan doakoak izan arte. Zehazki, gure proposamenean 2017tik aurrera haurreskolak, gainerako oinarrizko hezkuntza sistemaren moduan, doakoak izatea eskatzen dugu.

	28.960€ errentaren azpitik dutenek	28.960,01tik 41.850€ bitartean	41.850,01€tik gora dutenek
2015.urtean	Kuota doan	Gaur egungo kuotaren %50a	Gaur egungo kuotaren %75
2016 urtean	Kuota doan	Kuota doan	Gaur egungo kuotaren %50a
2017.urtean	Kuota doan	Kuota doan	Kuota doan

AHT-ren kilometro erdi baten inbertsioa haurreskoletan egitea eskatzen du ELAk

Kuota bidezko diru sarrerak urteko 12 miloi € inguru suposatzen dute. AHT-ren kilometro baten kostua 26 miloi €koa da aldiz. Hau da, AHT-n gastatzen den kilometro erdi baten inbertsioa haurreskoletan inbertituko balitz, hauek doan izango lirateke. Ez al da posible hau egitea? Ez al dago dirurik honetarako? Ala falta dena borondate politikoa da?